

# BERGARAKO BASERRITARREN AZOKA

Gipuzkoako azokak sustatu eta saretzeko partaidetza-prozesua

2021eko ekaina





# AURKIBIDEA

<b>1</b>	<b>SARRERA.....</b>	<b>- 3 -</b>
<b>2</b>	<b>HELBURUAK.....</b>	<b>- 4 -</b>
	2.1 Helburu nagusia.....	- 4 -
	2.2 Helburu zehatzak.....	- 4 -
<b>3</b>	<b>PROZESUA.....</b>	<b>- 5 -</b>
	3.1 Prozesuaren eskema.....	- 5 -
	3.2 Prozesuaren deskribapena .....	- 6 -
	3.2.1 Aurrelanak .....	- 6 -
	3.2.2 Hausnarketa .....	- 7 -
	3.2.3 Emaidza .....	- 8 -
	3.2.4 Komunikazioa.....	- 9 -
<b>4</b>	<b>EMAITZA ETA ONDORIOAK .....</b>	<b>- 10 -</b>
	4.1 Diagnostikoa.....	- 10 -
	4.1.1 Elkarrizketatuen iritziak.....	- 11 -
	4.1.2 Kontsumitzaileen ohiturak eta iritziak.....	- 13 -
	4.2 Erronkak .....	- 18 -
	4.3 Ekintza-plana .....	- 19 -

## 1 SARRERA

Herrietako azokak baserritarren merkaturatze bide izateaz gain, harreman eta topaketarako espazio dira, ondare sozial eta kultural garrantzitsu bat osatuz.

Tokiko baserritarren azoken dinamizazioa eta sustapena helburu, LANDAOLA elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Erika Fundazioaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eta Gipuzkoako lurraldeko 16 udalerriren konpromisoarekin, "Gipuzkoako azoken sarea" proiektua abiatu du.

"Gipuzkoako azoken sarea" proiektuak bi lan-ildo nagusi ditu:

Batetik, tokian tokiko azoken etorkizunean eragitea. Hau da, herri bakoitzeko baserritarren azokaren errealitatearen ezagutzatik abiatuz eta partaide direnen behar eta nahiak kontutan hartuz, etorkizunerako erronkak eta ekintza-plana lantzea.

Bestetik, tokian tokiko errealitateetatik haratago, lurralde mailan norabide komun bat landu eta Gipuzkoako azoken sare bat osatzea, elkarlana oinarri.

Testuinguru honetan kokatzen da Bergarako baserritarren azokaren inguruan 2021eko lehen seihilekoan aurrera eraman dugun prozesua.

## 2 HELBURUAK

### 2.1 Helburu nagusia

Herriko azokari buruz hausnarketa konpartitua egitea bertan aktiboki parte hartzen duten eragileen artean, elkarrekin, berau balioan jarri eta etorkizunera begirako erronkak eta ekintzak identifikatzea.

### 2.2 Helburu zehatzak

- **Hausnarketa konpartitua:** tokian tokiko baserritarrak, udalak eta kontsumitzaileak, denen artean, hausnarketa egitea eta hausnarketa konpartitua izatea.
- **Behetik gorako hausnarketa:** tokian tokiko behar eta interesetatik herriko azoka eredia eraikitzea.
- **Gipuzkoako sarea osatzea:** lurralde ikuspegitik sinergiak eta baliabideak aprobetxatuz, Gipuzkoa mailako sarea egiten joatea. Landa Garapen Elkartearen bidez hausnarketa bakoitza koordinatzea.
- **Azokak egonkortzea eta balioan jartzea:** azoken garrantzia balioan jarri eta irizpideak bateratzea, etorkizunean bizirauteaz gain funtzionamendua egonkortu eta hobetzeko.
- **Erronkak eta plangintza:** definitutako eredia garatzeko erronkak zehaztea eta plangintza baten jasotzea.

### 3 PROZESUA

#### 3.1 Prozesuaren eskema



## 3.2 Prozesuaren deskribapena

Aurreikusi eta jasotako eskemari jarraituz lan egin dugu eta garatu dugu prozesua.

### 3.2.1 Aurrelanak

Hasteko eta behin, Deba Garaia Landa Garapen Elkarteko ordezkariarekin eta Bergarako Udaleko solaskideekin Bergarako baserritarren azokarako prozesua onartu, lan-egiturak osatu eta komunikazio-plana adostu genituen.

#### Talde eragilea

Osaerari dagokionez, honako hauek osatu dugu:

IZEN-ABIZENAK	ARDURA
Ainhoa Lete Zabaleta	Bergarako Udala. Zinegotzia
Mari Karmen Iturbe Lezeta	Deba Garaia Landa Garapen Elkartea
Nagore Narbaiza Zarandona	Bergarako Udala. Gazteria, hezkuntza eta partaidetza teknikaria
Idurre Zugazagasti Aja	Elhuyar

Guztira, lau bilera egin ditugu eta taldearen egitekoa Bergarako baserritarren azokaren inguruko prozesua gidatzea eta koordinatzea izan da, beharrezko informazioa eta baliabideak denon eskura jarritz.

Aurrelanekin batera, Bergarako baserritarren azokaren inguruko informazioa-biltzea izan da hurrengo urratsa.

Bergarako baserritarren azokaren inguruko informazioa biltzeko eta horrekin oraingo egoeraren argazkia egiteko bi bide nagusi erabili ditugu: elkarrizketak eta galdetegi irekia.

#### Elkarrizketak

Bergarako baserritarren azokari buruzko informazioa eskuratzeko eta baserritarren azokari buruz herrian dauden pertzepzioak jasotzeko aurrez aurreko elkarrizketak egin ditugu. Elkarrizketen bidez, beraz, Bergarako baserritarren azokari buruzko argazkia osatu dugu eta indarguneak eta ahuleziak edo hobetzeko alderdiak identifikatu ditugu.

Elkarrizketatuak Bergarako azokan aktiboki parte hartzen duten eragileen ordezkariak izan dira, hala nola:

### ELKARRIZKETAK

**Guztira, 9 elkarrizketa egin ditugu**

- 6 baserritar
  - Bergarako Udaleko udal-ordezkari 1 eta 2 udal-teknikari
  - *Azoka Bergaratzan* prozesuko kide 1
  - Bertako produktuaren sustapenean diharduen eragile 1
- 8 emakume eta 3 gizon
- 6 banakako elkarrizketa eta taldeko elkarrizketa 1

### Galdetegia

Bergarako baserritarren azokari buruz eta beraien kontsumo- eta erosketa-ohituen inguruan hainbat galdera erantzuteko aukera eskaini diegu Bergararrei. Galdetegia zein on-line betetzeko aukera egon da.

### GALDETEGIAK

**Guztira, 163 erantzun jaso ditugu.<sup>1</sup>**

- Erantzun dutenen % 74 emakumeak izan dira, % 26 gizonak eta gainerako % 1 ez-bitarra.
- Adin-tarteari dagokionez, % 47 46-64 urte bitartekoak izan dira, % 34 30-45 urte artekoak, % 11 18 eta 29 urte bitartekoak eta % 8 65 urte baino gehiagokoak.
- Erantzuten dutenen % 76 euskaraz egin du eta gainerako % 24 gaztelaniaz.

### 3.2.2 Hausnarketa

Behin aurrelanak egin da eta Bergarako baserritarren azokaren inguruko informazioa bilduta, hausnarketari eman diegu segida.



<sup>1</sup> Lagina estatistikaren aldetik adierazgarria ez izan arren, irudi orokorra eta errealitatearen zati bat islatzen duela esan daiteke.

### Hausnarketa-taldea

Osaerari dagokionez, honako hauek osatu dugu:

IZEN-ABIZENAK	ARDURA
Ainhoa Lete	Bergarako Udala. Zinegotzia
Aitziber Plazaola	Ereindajan Bergarako koordinatzailea
Ane Miren Seminario	Elkarzabal elkarteko kidea
Asier Latorre	Oxirondo azokako <i>Izotz</i> postuko dendaria
Carmen Etxeberria	Ekoizlea.
Ion Ruiz de Eginola eta Nere Aspiazu	Ekoizleak. Eskubaratz
Mari Karmen Iturbe	Deba Garaia Landa Garapen Elkarte
Nagore Narbaiza	Bergarako Udala. Gazteria, hezkuntza eta partaidetza teknikaria
Tomas Larrañaga	Ekoizlea. Lapatza baserria
Amaia Zarrabeitia	Elhuyar
Idurre Zugazagasti	Elhuyar

Hausnarketa-taldeak hiru lan-saio egin ditu eta bere egitekoa izan da Bergarako baserritarren azokari buruzko hausnarketa egitea eta etorkizunera begira jartzea azoka sustatzeko eta balioan jartzeko erronkak identifikatu eta ekintzak planifikatuz.

### 3.2.3 Eraitza

Prozesuaren azken eraitza Bergarako baserritarren azokaren sustapenerako ekintza-plana da.

Ekintza-planaren lehen proposamena lehen bi hausnarketa-saioetan landutakoak kontutan hartuta landu dugu eta hausnarketa-taldearen hirugarren eta azken lan-saioan aurkeztu eta elikatu dugu. Azken ekarpenak egiteaz eta berau onartzeaz, aldiz, talde eragileko kideak arduratu gara.

Azken urratsa Bergarako baserritarren azokaren inguruko prozesua eta honen eraitza gizarteratzea izan da. Honetarako bi momentu aurreikusi dira: batetik, partaidetza-prozesuan parte hartu dutenei zuzendutako itzulera-saioa, uztailan zehar ospatuko duguna. Eta bestetik, eraitzen gizarteratzea, *Bergara 2030 Egin Herrixa* plan estrategikoaren itzulerarekin batera egingo dena eta hau irailean egingo da.



### 3.2.4 Komunikazioa

Komunikazioa-plana lehenengo talde eragilean landu dugu eta kanpo- eta barne-komunikazioa bereizi ditugu.

Kanpo-komunikazioari dagokionez, hiru momentu nagusi izan ditugu:

- |  |
|--|
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Bergarako baserritarren azoka indartzeko prozesuaren berri ematea, <i>Bergara 2030, Egin herrixa</i> plan estrategikoaren lanketaren aurkezpenaren baitan.</li></ul> |
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Bergarako baserritarren azokaren inguruko galdetegiaren zabalkundea.</li></ul>   |
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Bergarako baserritarren azokaren inguruko hausnarketa prozesutik eratorritako emaitza gizarteratzea.</li></ul>   |

Barne-komunikaziorako berriz, hurrengoak izan dira urratsak:

- |  |
|--|
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Bergarako baserritarren azokaren inguruko prozesuaren berri eman eta elkarrizketarako gonbidapen-gutuna bidali</li></ul>                         |
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Hausnarketa-taldeko kideei telefono bidez deialdiaren berri eman eta gonbidapena egin</li></ul>  |
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Bergarako baserritarren azokaren inguruko hausnarketa prozesutik eratorritako azken emaitza prozesuan zehar parte hartu dutenei itzuli</li></ul> |

Eta koordinazio eta komunikaziorako ahoz ahokoa eta e-maila erabili ditugu, eta lan honetarako ezinbestekoa izan da talde eragileko kideon arteko lankidetzeta.

## 4 EMAITZA ETA ONDORIOAK

### 4.1 Diagnostikoa

Gaur egun, Bergarako baserritarren azoka bi egunez ospatzen da, larunbat goizetan eta asteazken arratsaldetan.

Larunbatetan 8 postu izaten dira, asteazkenetan berriz 3 <sup>(1)</sup>.

POSTUA	PRODUKTU-ESKAINTZA
Aierdi baserria	Ogia
Ama Txo	Gazta ekologikoa
Bidaurre baserria	Fruta, sagarra nagusiki
Bolubarri baserria	Barazkiak
Elkarzabal integrazioarako elkarteak <sup>1</sup>	Barazkiak, loreak
Eskubaratz <sup>1</sup>	Barazki agroekologikoak
Etxague Azpikoa baserria <sup>1</sup>	Barazkiak, ogia, eztiak
Lapatza baserria	Barazki ekologikoak

Postua duten baserritarren gehiengoa Bergarakoa da, zehazki zortzi lagunetik bost, beste bi Antzuolatik etortzen dira eta azkena Oñatitik.



*Irudia: Goiena*

### 4.1.1 Elkarrizketatuen iritziak

Aurrez aipatu bezala, Bergarako baserritarren azokan aktiboki diharduten bederatzi lagun elkarrizketatu ditugu. Elkarrizketatuen iritziak eta bizipenak izan dira oinarria eta hauen erantzunak kontutan hartuta atera ditugu diagnostiko kualitatiboko ondorioak.

Elkarrizketatik jasotakoa bost esparru nagusitan antolatu ditugu:

#### 1. Kudeaketa

Ardatz honen baitan kokatu dugu kudeaketa-ereduari buruzko eztabaida, eta honen baitan hausnartu dugu gaur egun ardurak eta erantzukizunak nork dituen. Horretaz gain, prozesu eta prozeduren inguruan hitz egindakoa hemen kokatu dugu. Adibidez, azokan saltzeko sarbideari dagokion prozedura, edota kuotari dagozkionak... baserritarren betebeharrak zeintzuk diren, etab. Amaitzeko, komunikazio-kanalak nolakoak diren jaso dugu.

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalarekin harreman ona</li> <li>• Bezeroarekiko hurbiltasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Azokara etortzeko eskaera urtero berritu beharra</li> <li>• Kuota. Bailarako azoketan irizpideak desberdinak dira</li> <li>• Aste barruko itxura tristea</li> <li>• Postu finkoen jarraikortasun eza</li> <li>• Une honetan, COVID-19a dela-eta, postuen antolaketa eta distribuzio desorekatua</li> </ul>

#### 2. Espazioa

Espazioari dagokionez hainbat galdera izan ditugu ardatz: kokapena, kokapen horren egokitasuna, irisgarritasuna, karga/deskargarako tokia, etab. Baita eraikinaren egoera eta beharrak, azpiegiturak...

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eraikin itxia eta babestua</li> <li>• Irisgarria</li> <li>• Karga eta deskargarako lekua</li> <li>• Komunak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herri erdigunetik urruti geratzen denaren pertzepzioa</li> <li>• Eraikinaren funtzionalitate eza</li> <li>• Karga eta deskargarako leku mugatua</li> <li>• Aparkatzeko baimen-berezirik ez izatea</li> <li>• Oxirondo eraikinaren sustapenerako hainbat prozesu eta ekimen landu dira, baina ez da emaitza iraunkorrik lortu</li> </ul>

#### 3. Baserritarrak

Baserritarrei dagokienez ere, lehenengo eta behin profila aztertu dugu: batz besteko adina, sexua, jatorria, laneko baldintzak edo ezaugarriak, erreleborik dagoen edo ez... Bestaldetik, ekoizpena eta produktu-eskaintza: norberarena, ekologikoa edo birsaltzaileak.. produktu

barietatea... aztertu ditugu. Eta amaitzeko ekoizleen arteko harremana, egituratuta dauden edo ez, udalarekin nola harremantzen diren ezagutu dugu.

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Baserritarren arteko harreman ona</li> <li>• Hurbileko merkaturatze bide da azoka, konfiantza eta hurbiltasuna oinarri</li> <li>• Larunbateko azokaren arrakasta</li> <li>• Produktu eskaintza askotarikoa eta osagarria</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bakoitzak bere aldetik funtzionatzen du</li> <li>• Asteazkenetako azokan postu kopuru baxua</li> <li>• Birsalmenta ez dago erregulatuta</li> <li>• Baserritar eta gainerakoen arteko bereizketa lausoa</li> <li>• Produktu eskaintza murrizta</li> <li>• Ekoizpen falta / Produkzio falta ?</li> </ul>

#### 4. Kontsumitzaileak

Kontsumitzaileei dagokienez, alde batetik profila aztertu dugu: batz besteko adina, sexua, jatorria, erosketa-ahalmena, bilatzen duen produktua eta zergatia. Eta bestetik, kontsumo-ohitura berriak izan ditugu aztergai.

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bezero fidelak</li> <li>• Bezerearekin gertuko eta konfiantzazko harremanak</li> <li>• Larunbatetan bezero asko hurbiltzen da</li> <li>• Asteazkenetako azokan familiak ugari</li> <li>• Bezero gazteek produktu ekologikoekiko duten apustua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bezereen gehiengoa edadetua izatea</li> <li>• Herritarren erosketa-ohitura aldakorak</li> <li>• Eguna eta ordua gaur egungo bizimoduarekin bateratzen zaila</li> <li>• Kontsumo-ohitura berrien etorrera eta abiadura</li> </ul>

#### 5. Hedapena eta kanpo-dinamikak


Hedapenaren baitan azoka erakusteko edo ikusarazteko ekintza edo dinamikak aztertu ditugu. Finean, azokaren eta azokaren baitan dauden ekoizleen lana eta emaitza ikusgarri egitea, balioan jarriz. Besteak beste, lankidetzak edo elkarlanak identifikatu nahi izan ditugu. Merkataria eta ostalariekin, adibidez, eta baita hezkuntza-komunitatearekin lotuta egiten diren sustapen-ekintzak ere.

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletik egindako saiakerak, batez ere, asteazkenetako azoka sustatzeko</li> <li>• Pintxo-potea erakargarri bat izaten da</li> <li>• Herriko eskolekin egiten den lanketa</li> <li>• Azoka bereziak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ostalari eta merkatariekin harremana puntuala izaten da</li> <li>• Herritarrak erostera erakarri behar dira</li> </ul>


### 4.1.2 Kontsumitzaileen ohiturak eta iritziak

Bergarako herritarren kontsumo-ohiturak ezagutu eta Bergarako baserritarren azokaren inguruko iritziak jasotzeko galdetegi bat zabaldu dugu.


Lehen galderan elikagaiak non erosten dituen galdetu dugu. Galdetegia erantzun dutenen gehiengoak elikagaiak supermerkatuan eta herriko saltoki txikietan erosten ditu. Era berean, galdetegia erantzun dutenen 163 lagunetik 93k Bergarako baserritarren azokan erosten duela esan du. Gutxiago dira kontsumo-taldean edo kontsumo-kooperatibak erosten duenak eta are gutxiago hipermerkatuan edo Internet bidez erosten dutenak.




Jarraian, Bergarako baserritarren azokan erosteko ohitura duten galdetu diegu eta galdetegia bete dutenen % 60 Bergarako baserritarren azokan erosten duela erantzun du, maiztasun handiago edo txikiagoarekin.




Bergarako baserritarren azokan erosteko ohitura dutenei zergatia galdetu diogu eta gehiengoak bertako produktua erosteko aukera dagoelako aipatu du. Kalitatezko eta konfiantzazko produktuak izatea ere balioan jarri dute galdetegia erantzun dutenek.



Bergarako baserritarren azokara joateko ohitura dutenen artean gehiengoak barazkiak erosten ditu, ogia eta gozoak eta fruta eskaera handiko produktuak dira ere, eta ondoren leudeke arrautzak, esnekiak, landareak ... Galdetutako elikagaiez gain, hainbatek erantzunetan haragia, arraina eta beste produktu batzuk erosten dituztela adierazi dute.




Era berean, baserritarren azokan erosteko ohitura dutenei Bergarako baserritarren azokako hainbat aldagai baloratzeko eskatu diegu. Produktuaren kalitatea izan da altuen baloratutako aspektua, 5etik 4,26ko puntuazioarekin. Ondoren, kokapena eta irisgarritasuna, prezioa, giroa, produktu-eskaintza eta egutegia eta ordutegia izan dira puntuazio altuenetik baxuenerako baloratutako aspektuak. Eta puntuazio baxuena eraikinak eta azpiegiturek izan dute, 5etik 3,57ko puntuazioarekin.



Begarako baserritarren azokako baloratu beharreko aspektuen inguruan aipamenik egiteko aukera eman diegu eta bi aipamenetara laburbildu daitezke jasotako erantzunak. Batetik, egutegia eta ordutegia aspektuari dagokionez, baserritarren azoka beste egun eta ordu batean egitea proposatzen dute, baita Oxirondo azokan produktu-eskaintza iraunkor bat izatea. Eta bestetik, eta kasu honetan eraikinean eta azpiegiturretan jarriz arreta, lekua goxatu, epeldu eta erakargarri bihurtu beharra aipatzen dute, erabilerak desberdindu eta antolatzearekin batera.

Bestalde, Bergarako baserritarren azokan inoiz erosi ez dutela adierazi duten 30 lagunei, ez erostearen arrazoia zeintzuk diren galdetu diegu eta % 73 ohitura falta aipatu du arrazoi nagusi moduan. Gutxi batzuek eguna eta ordutegia egokiak ez direla adierazi dute eta bakarren batek ez dagoela eskuragarri edo irisgarri.



Amaitzeko bi galdera ireki egin ditugu.

Batetik, zer behar duzu Bergarako baserritarren azokak erosten jarraitzeko edo erosten hasteko? eta behekoak izan dira jasotako erantzunak:

EROSTEN JARRAITZEKO	EROSTEN HASTEKO
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaur egungo baserritar azoka mantentzea</li> <li>• Egutegi eta ordutegi zabalagoa</li> <li>• Produktu-eskaintza mantentzea edo zabaltzea</li> <li>• Kalitatea mantentzea</li> <li>• Baserritar gehiago hurbiltzea</li> <li>• Bertako produktua izatea, lehentasuna ematea</li> <li>• Eraikina erakargarriagoa izatea, epeltasuna egotea</li> <li>• Ekoizle ekologiko gehiago hurbiltzea</li> <li>• Aparkatzeko lekua</li> <li>• Azokara joateko ohitura sendotzea</li> <li>• Teknologikoki modernizatzea</li> <li>• Denbora</li> <li>• Azokaren inguruko informazioa handitzea</li> <li>• Azokako giroa hobetzea</li> <li>• Harreman zuzena izaten jarraitzea / Euskarazko harremana</li> <li>• Azokako postuen itxura zaintzea</li> <li>• Herrira zabaltzea</li> <li>• Osasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ohiturak aldatzea</li> <li>• Eskaintza zabalagoa / Erosketa osoa egiteko aukera izatea</li> <li>• Denbora</li> <li>• Egutegi eta ordutegi zabalagoa</li> <li>• Aparkatzeko lekua</li> <li>• Azoka kalera ateratzea, erakargarri izatea</li> <li>• Etxera ekartzeko zerbitzua eskaintzea</li> <li>• Prezio baxuagoak jartzea</li> <li>• Azokaren inguruko informazioa izatea, eskaintza ezagutzea</li> </ul>

Bergarako baserritarren azokan erosten jarraitzeko gehien aipatu den beharra gaur egungo baserritarren azoka mantentzea izan den arren, badira pisu nabarmena agertu duten beharrak, hala nola: baserritarren azoka beste egun edo ordu batean jartzea, astean zehar produktu-eskaintza iraunkorra bermatzea eta azokara baserritar gehiago hurbiltzea produktu-eskaintza zabalagoa izanik.

Aldiz, baserritarren azokan erosten hasteko aspektu bakarra gailendu da, norberaren ohiturak aldatu beharra.



Eta bestetik, Bergarako baserritarren azokaren sustapenerako zer-egingo luketen galdetu dugu. Proposamenen zerrenda gehien aipatu diren proposamenetatik pertsona bakarrak proposatutakoa bitarte jaso dugu.

### SUSTAPENERAKO PROPOSAMENAK

- Ez dakit
- Komunikazioa, sentsibilizazio kanpainak egin
- Produktu-eskaintza zabaldu eta egonkortu
- Azoka kalera atera
- Baserritarrei erraztasunak eman
- Herritarrak (eta gazteak) kontzientziatu
- Informazioa zabaldu, ipini
- Erosketa sustatu
- On-line zerbitzua jarri
- Egutegia eta ordutegia zabaldu
- Bertako produktuaren sustapenerako proiektu integral bat garatu
- Erosketa bonoak jarri
- Azoka kokapenez aldatu, herrira hurbildu
- Azokako postuak berritu, egoki antolatu
- Eraikina berritu, berrantolatu, epeldu, argitu
- Azokako postu finkoetan eskaintza egonkorra jarri
- Ahoz aho, lagunartean azokaren berri zabaldu
- Etxez etxeko zerbitzua eskaini
- Erosketa bertan jasotzeko puntu bat jarri
- Taberna, kafetegi... bat jarri
- Azokan bertan ekimen desberdinak antolatu
- Herriko eragileekin elkarlanak sustatu
- Baserritarrei bisitak antolatu
- Ludoteka kendu eta erosketa gune bihurtu
- Kuota bat ezarri
- Prezioak jaitsi
- Norbanakoaren ohitura erosketetan eragin
- Baserritarren arteko antolaketa eta koordinazioa sustatu
- Produktuen kalitatea sustatu
- Aparkatzeko erraztasunak eman
- Zerbitzu osagarriak jarri
- Zaintza zerbitzua jarri
- Artisau postuekin osatu
- Giroa sustatu
- Baserritarren produktuak beste salmenta-puntu batzuetara zabaldu

## 4.2 Erronkak

Testuinguru honetan, eta hausnarketa-taldeko kideen parte hartzearen bidez Bergarako baserritarren azokako erronka nagusiak identifikatu, lehenetsi eta hauei aurre egiteko ekintza-plana definitu da.

Identifikatutako lehen erronka Bergarako baserritarren azokaren sustapenetik haratago doan proposamena da, zehazki, Oxirondo azoka, bere osotasunean, biziberritzea. Honetarako proposamen zehatza jaso da, hau da, Oxirondo bertako produktuaren eta lehen sektorearen erreferentziazko proiektu bilakatzearena.

Epe ertainerako erronka honek baina beste hainbat erronka eta helbururi erantzun beharko die, hala nola: baserritarrak erdigunean jarri eta ikusgarritasuna irabazteari; baserritar azokako baldintzak (sarbide irizpideak, kuotak, birsalmenta...) berrikusteari; Oxirondoko postu finko hutsak betetzeari...

Era berean, badira epe laburrean erantzuteko hainbat aspektu, Bergarako baserritarren azokaren egunerokoa erraztea helburu dutenak. Tartean dira: baserritarren, udalaren eta landa garapen elkartearen arteko koordinazioa eta komunikazioa hobetzeko bideak aztertzea, eta kudeaketarako lantalde bat sortzea; baserritarrei azoka egunean aparkatzeko erraztasunak eskaintzea...

Eta lehentasunean bat datoz, denboran hedatuagoak izan daitezkeen beste hainbat erronka eta ekintza, zeinak baserritarren eta kontsumitzaileen ahalduntzea duten helburu. Baserritarrei eta euren jarduera aurrera eramateko laguntza desberdinak aztertu eta martxan jarri; bai baserritarrei, bai kontsumitzaileei zuzendutako prestakuntza eskaini, herritarrak bertako produktuaren inguruan kontzientziatu; eta beste hainbat proposamen.

Hauek guztiak ondorengo ekintza-planean jaso dira, kronograma batera eraman eta ardurak banatzearekin batera.

### 4.3 Ekintza-plana

ERRONKA OROKORRA	HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	ARDURADUNAK
0. Oxirondo azoka biziberritzea	0.1 Oxirondo azoka bertako produktuaren eta lehen sektorearen erreferentziazko proiektu bilakatzea	0.1.1 Oxirondo azokan bertako produktuaren eta lehen sektorearen sustapenerako proiektu integral bat garatzeko interesdunak identifikatu	x				Udala eta Deba Garaia
		0.1.2 Oxirondo azokan bertako produktuaren eta lehen sektorearen sustapenerako proiektu integral bat definitzeko herri-mailako lanketa adostu eta egin	x	x			Udala eta Deba Garaia
<p><i>Erronka orokorra hau izanik, beheko ekintza-planeko erronka, helburu estrategiko eta ekintza batzuk Oxirondo azokan bertako produktuaren eta lehen sektorearen sustapenerako proiektu integrala definitzeko lanketaren baitan egin, landu edo adostu ahalko dira; beste batzuk berriz, honen emaitzaren arabera egokitu beharko dira.</i></p>							

KUDEAKETA							
ERRONKAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	ARDURADUNAK
1. Bergarako baserritarren azokako kudeaketa sendotzea	1.1 Bergarako baserritarren azokako kudeaketa eraginkorragoa egitea	1.1.1 Bergarako baserritarren azokaren kudeaketaz arduratuko den lantaldea izendatu eta osatu	x				Udala
		1.1.2 Bergarako Udalaren, Deba Garaia Landa Garapen Elkartearen eta Bergarako azokako baserritarren arteko komunikazio kanalak hobetu, definitu eta adostu	x	x			Lantaldea
2. Bergarako baserritarren azokako baldintzak lantzea	2.1 Hurbileko salmenta arautzeko dekretua ezagutzea eta lantzea, Bergarako baserritarren azokara egokitzeak	2.1.1 Hurbileko salmenta arautzeko dekretua ezagutu eta beharrezkoa balitz Bergarako baserritarren azokako ordenantza egokitu		x			Udala eta Deba Garaia
		2.1.2 Hurbileko salmenta arautzeko dekretuak dakartzan aldaketak Bergarako baserritarrekin hausnartu eta Bergarako baserritarren azokara egokitu		x			Lantaldea
	2.2 Gaur egungo Bergarako baserritar azokako baldintzak berrikustea eta beharrezkoa bada egokitzea	2.2.1 Bergarako baserritarren azokako kuota-eredua berrikusi eta murrizteko aukerak aztertu		x			Udala
		2.2.3 Bergarako baserritarren azokan birsalmentarako irizpideak berrikusi eta adostu		x			Lantaldea
2.3 Bergarako baserritarren azokako informazioa gardentasunez komunikatzea	2.3.1 Baserritarren azokako produktuen inguruko (jatorria, prezioa... ) gardentasun-irizpideak landu eta ezarri		x			Lantaldea	
3. Bergarako baserritarren azokaren sustapenean eragitea	3.1 Bergarako baserritarren azokako sustapenerako ekintza-plana garatzea	3.1.1 Ekintza-planaren lidergoa izan eta garapena eta jarraipena bermatu	x	x	x	x	Deba Garaia
		3.1.2 Ekintza-plana oinarrian hartuta lan-egitea. Urtean behin, beharrezko egokitzapenak aztertu, eta erronka eta helburu berriak identifikatu	x	x	x	x	Lantaldea
		3.1.3 Ekintza-planaren jarraipena eta ebaluazioa egin				x	Lantaldea

**BERGARAKO BASERRITARREN AZOKA | EMAITZA ETA ONDORIOAK**

ESPAZIOA							
ERRONKAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	ARDURADUNAK
4. Postu finkoetan eskaintza iraunkorra izatea	4.1 Postu finko hutsak betetzea, Oxirondo eraikinari bizia eskainiz	4.1.1 Oxirondo eraikineko postu finkoetan zer zerbitzu, denda... jartzea nahi diren hausnartu eta irizpide batzuk ezarri		x			Lantaldea
		4.1.2 Oxirondo eraikineko postuetan zerbitzu, denda... irekitzeko erraztasunak eskaini			x		Udala
5. Oxirondo eraikineko azpiegitura eta zerbitzuak egokitzea	5.1 Oxirondo eraikineko mugikortasun-zerbitzuak egokitzea	5.1.1 Oxirondo eraikineko karga eta deskargarako eremua Bergarako baserritarren erabilera-beharrei egokitzeko aukerak aztertu eta egin beharreko egokitzapenak egin			x		Udala
		5.1.2 Bergarako baserritarrei azoka egunetan aparkatzeko erraztasunak eskaini	x				Udala
6. Oxirondo eraikineko espazioaren antolaketa doitzea	6.1 Bergarako baserritarren azokak zentralitatea eta ikusgarritasuna irabaztea	6.1.1 Baserritarren postuen antolaketa eta espazioaren banaketa egokitu, baserritarren azoka erdigunean jarrita		x			Lantaldea

BASERRITAR ETA EKOIZLEAK							
ERRONKAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	ARDURADUNAK
7. Baserritarrak saretzea	7.1 Baserritarren arteko harremanak sustatzea	7.1.1 Baserritarren arteko komunikazioa sustatzeko bideak landu	x	x	x	x	Lantaldea
8. Azoka eta salmenta alorreko trebakuntza eskaintzea	8.1 Baserritarren salmenta-ezagutzak hedatzea	8.1.1 Azokaren funtzionamendu, salmenta, digitalizazio eta kontsumo-ohitura berrien alorreko trebakuntza eskaintza landu eta eskaini		x			Udala, Deba Garaia eta Sarea
9. Lehen sektorean lan egitea erakargarri eta bideragarri izatea	9.1 Lehen sektorean lanean hasten diren ekoizle berriei hastapenak erraztea 9.2 Lehen sektorean lan egitea irteera profesional bideragarria dela erakustea eta bermatzea	9.1.1 Ekoizle berriei bideratutako laguntzak handitu eta berriak aztertu			x		Udala, Deba Garaia eta Sarea
		9.2.1 Irteera profesional erakargarria eta bideragarria izateko bitartekoak landu eta eskaini			x		Udala, Deba Garaia eta Sarea
10. Produktu-eskaintza handitzea	10.1 Kontsumitzaileei begira, erosketa-saskia osatzeko eskaintza zabaltzea	10.1.1 Baserritar berriak identifikatu eta Bergarako baserritarren azokara etortzeko aukera zabaltzea			x		Lantaldea
		10.1.2 Elikaduratik haratagoko produktuak saltzeko bideak eta irizpideak aztertu		x			Lantaldea

**BERGARAKO BASERRITARREN AZOKA | EMAITZA ETA ONDORIOAK**

KONTSUMITZAILEAK							
ERRONKAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	ARDURADUNAK
11. Kontsumitzaileak erakartzea	11.1 Bergarako baserritarren azokako salmenta kontsumo- eta erosketa-ohitura berrietara egokitzea	11.1.1 Kontsumo- eta erosketa-ohitura berriak ezagutu eta Bergarako baserritarren azokarako egokiak izan daitezkeen aztertu	x	x	x	x	Lantaldea
	11.2 Kontsumitzaileei Bergarako baserritarren azokako produktuak erosteko erraztasunak eskaintzea	11.2.1 Bergarako baserritarren azokako produktuak etbez etxeko zerbitzu bidez saltzeko aukerak aztertu, Bedelkarrekin batera		x			Lantaldea
		11.2.2 Bergarako baserritarren azokako produktuak erosi eta jasotzeko takilla zerbitzua eskaintzeko aukerak aztertu		x			Lantaldea
12. Kontsumitzaileak hezitzea	12.1 Kontsumitzaileen erosketa-ezagutzak hedatzea	12.1 Kontsumitzaileek Bergarako baserritarren azokan erosteko heziketa landu eta formazioa eskaini			x		Lantaldea

HEDAPENA ETA KANPO-DINAMIKAK							
ERRONKAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	ARDURADUNAK
13. Bertako produktuaren eta lehen sektorearen inguruko kontzientziazio indartzea	13.1 Kontsumitzaileek azokako eta bertako produktuak ezagutzea, balioa ematea eta erostea	13.1.1 Bergarako baserritarren azokako irudia eta kontakizuna sortu		x			Lantaldea
		13.1.2 Bertako produktuak erostea eta kontsumitzea dituen onurak ezagutaraziko duen herri mailako kontzientziazio kanpaina bat diseinatu eta egin			x		Lantaldea
		13.1.3 Lehen sektoreko baserritarren lana eta onura aitortuko dituen herri mailako kontzientziazio kanpaina bat diseinatu eta egin				x	
	13.2 Beste eragileen elkarlanaren bitartez, azoka eta bertako produktua ezagutaraztea	13.2.1 Ostalari eta merkatariekin pedagogia eta kontzientzia ekimen iraunkorrak antolatu				x	
13.2.2 Hezkuntza komunitatearekin egiten den lana findu eta lanketa berriak aztertu				x			Lantaldea
14. Gipuzkoako beste azokekin sarea osatzea	14.1 Gipuzkoa mailako azoken artean indarrak batzea eta lanketa komunak egitea	14.1.1 Gipuzkoa mailako ekintza-plana ezagutu eta Bergarako errealitatera egokitu	x				Udala eta Deba Garaia
		14.1.2 Gipuzkoako mailako ekintza-planetik eratorritako ekintzak garatu edo bertan parte hartu		x	x	x	Udala, Deba Garaia eta ekoizleak